



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko abenduaren 4a

146. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa. Proiektu hori 2018ko urriaren 26ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

1. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela gelditzen da testua:

“I. titulua. Xedapen orokorrak.

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da Nafarroako memoria historikoaren tokiak deklaratu, babestu, zaindu eta haien berri zabaltzea, memoriaren transmisiorako gune izan daitezkeen eta akordioaren, justizia sozialaren, demokraziaren, bakearen eta giza eskubideen kultura sustatzeko lagundu dezaten, balio hauekin bat:

(...)

c) Begirunea, negoziazioa eta akordioa sustatzea, egiazko bizikidetzeta justu eta baketsua eraikitzeko modua den aldetik”.

Zioen azalpena: jatorrizko testua osatzea eta hobetzea, oroimen historikoan oso esanguratsuak eta funtsezkoak diren kontzeptuak berreskuratuz, hala nola akordioaren kultura, justizia sozialarena, demokraziarena, bakearena eta Giza Eskubideena, errespetua, negoziazioa eta akordioa.

2. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

2. artikulua 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela gelditzen da testua:

“2. artikulua. Nafarroako memoria historikoaren tokiak.

1. Memoria historikoaren tokia gune fisiko bat da, Nafarroan dagoena eta halakotzat deklaratu eta inskribatuta, eta Foru Komunitatearen intereskoa, memoriaren ondare historikoa den aldetik, bertan garrantzi bereziko gertaerak izan zirelako, lotuta daudenak gerra bidegabe eta desorekatuekin, 1936ko kolpe militarren eta ondoko errepresio frankistaren ondorioz herritarren kontra erabilitako errepresioarekin eta bortxakeriarekin eta, halaber, giza eskubide indibidual eta kolektiboak konkistatzeko, borrokatzeko eta errebindikatzeko guneekin. Hartara, halakotzat deklaratu ahalko dira honakoak:”

(...)

Zioen azalpena: oroimen historikoko lekuen definizioan "guerras injustas y desiguales" bezalako kontzeptuak txertatzea, gertatua hobeki eta modu bidezkoago batean zehazten baitute; baita "espacios de reivindicación, lucha y conquista de derechos humanos individuales y colectivos" bezalako kontzeptuak ere, oroimen lekuei zentzu eta eduki funtsezko bat ematen dietenak, erreprimituak eta zigortuak izan ziren aldarrikapenak eta borrokak gogoratu eta berreskuratzen baitituzte.

3. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO

FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

2. artikuluko 2. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

(...) “gerora sortutakoa errepresio haren biktimenzako oroimen, aitortza eta erreparazio gisa, betiere lur-zatiaren jabearen baimenarekin sortu badira”.

Zioak: Saihestea lursail pribatuetan oroigarriak edo lanak egitea jabeen baimenik gabe, jabetza pribaturako eskubidea babeste aldera.

4. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

2. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa, beste apartatu bat, 4.a, gehitzeko. Hona edukia:

“4. Foru lege honen 10. eta 11. artikuluetan aurreikusitako araubidetik salbuesten dira Estatuaren titulartasuneko erabilera eta zerbitzu publikoei atxikitako ondasunak, ezertan ukatu gabe administrazioko lankidetzeta eta kooperaziorako behar diren harremanak”.

Zioak: 33/2013 Foru Legean ezarritakoarekin eta Parlamentu honen erabakiekin bat.

5. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

4. artikulua 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela gelditzen da testua:

“4. artikulua. Memoria historikoa terminoaren esparru kronologikoa.

1. Foru lege honen ondorioetarako, legea aplikatuko da, batez ere, 1936ko uztailleko kolpe militarretik 1978ko abenduaren 29ko Konstituzioak indarra hartu arteko aldi kronologikorako.

2. Data horiek ez dira kontuan hartuko foru lege honen 2. artikuluko 2. apartatuan aipatzen diren memoriaren aldeko guneen kasuan”.

Zioen azalpena: legeak jasotzen duen aldi kronologikoa aldatzea proposatzen da, oroimen historikoaren ikuspegitik irakurketa egokiagoa izan lezaketen zenbait gertaera, kronologikoki legeak berak aitortzen duen epeetatik kanpo egotearen ondorioz, legearen eremutik kanpo geldi ez daitezken.

6. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

5.1.b) artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona edukia:

“b) Haien aldeko kautelazko neurriak hartzea”.

Zioak: Desjabetze bat kautelazko izaeratik urruti dago. Izan ere, neurri hori hartu behar da, dagokion prozeduraren ondotik, ez-betetze bat gertatzearen ondorioz.

7. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

5. artikuluko 1. Apartatuko b) letra aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“b) Haien aldeko kautelazko neurriak hartzea”.

Zioak: Jabetza pribaturako eskubidea babestea.

8. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

7. artikuluko b) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Saihestea lursailen eta/edo ondasunen jabeen kalteak eragin ahal izatea oroimen historikoaren toki deklaratuak izan baino lehen; izan ere, baliteke deklarazio horrenik ez egitea.

9. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

7.b) artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona edukia:

“b) Deklarazio eta inskripziorako prozedurari hasiera ematen dion ebazpenak berekin ekarriko du ondasunaren kautelazko idatzoharra egitea Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroan, eta berehalako eta zuzeneko ondorioa izanen da foru lege honetan ezarritako babes araubidea behin-behinekoz aplikatzea inskribatutako tokietarako. Kautelaz, udalak ez du emanen lurzati-tarik, eraikuntzarik edo eraispenik egiteko lizentziarik, eta etenda geldituko dira ordurako

emanda daudenak. Era berean, kautelaz etenen da babestu nahi den ondasunaren balioak arriskuan jartzen dituen esku-hartze oro. Kautelazko etena amaituko da prozedura ebatzi eta, kasua denean, hartu beharreko neurriak hartzen direnean. Hala ere, memoria historikoaren arloko eskumena duen departamentuak, prozeduraren tramitazioan zehar, jarduketa horiek erabaki ahalko ditu, ikusten badu ez dela arriskuan jartzen inskribatu nahi den ondasunaren balioa”.

Zioak: Egokiagoa iruditzen zaigu fase honetan kautelazko neurriak hartzeko aukera ezartzea eta haiek era batean zehaztea.

10. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

7. Artikuluko d) letra aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“d) Deklarazio eta inskripziorako prozeduran nahitaezkoak izanen dira tramite hauek: jenduraren jartzekoa eta informazio espresa eta entzunaldia ematekoa bai zuzenean ukitutako partikularrei bai tokia kokatuta dagoen toki entitateari.

Zioak: Saihestea ukitutako partikular batek afekzio horren berri ez izatea.

11. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

7. Artikuluko i) letra aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

i) Prozedurari hasiera ematen zaionetik sei hilabete iragaten badira (...), prozedura iraungi egingen da.

Zioak: Gure ustez, sei hilabeteko epea nahikoa da prozedura ebazteko.

12. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

9. artikuluko 2. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Nafarroako Gobernuak Nafarroako memoria historikoaren toki gisa inskribatutako lursailen

eta/edo ondasunen jabeekin negoziatu eta akordioak lortuko ditu bide-zortasun mekanismo egoiak ezartzea aldera”.

Zioak: Memoria historikoaren tokietarako sarbidea erraztu behar da, baina horrek ez du galarazi behar jabeen jabetza pribaturako eskubidea.

13. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

9.2 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona edukia:

“2. Lursailak eta higiezinak Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroan memoriaren toki gisa inskribatzeak berekin dakar, ondorio guttiararako, ondasun horiek onura publikoko edo interes sozialekotzat jotzea”.

Zioak: Aurkeztutako zuzenketekin bat, zehazpen-ondorioetan ez ezik diru-laguntzak eskuratzeko eragiten duelako.

14. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

10. artikulua 1. apartatuko a) letra aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“a) Nafarroako Foru Komunitateari erraztea ondasun horien zaintza, babesa eta mantentzea, memoria historikoaren tokiak diren aldetik, haien balioak zainduta daudela bermatze aldera”.

Zioak: Memoria historikoaren tokien zaintzak eta babesak partikularrei eta jabeek ekarri ahal dizkien kostuak ezin zaizkie haiei jasanarazi. Bete behar hori Nafarroako Gobernuari dagokio.

15. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

10. artikulua 1. apartatuko c) letra aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“c) Nafarroako Gobernuari erraztea ondasunak suntsitu edo honda daitezen eragozte”.

Zioak: Memoria historikoaren tokien zaintzak eta babesak partikularrei eta jabeek ekarri ahal diz-

kien kostuak ezin zaizkie haiei jasanarazi. Betebehar hori Nafarroako Gobernuari dagokio.

16. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

10. artikuluko 3. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“3. Memoria historikoaren arloan eskumena duen departamentuari dagokio aholku ematea zainketarako betebeharra betetzeko behar diren lan eta jarduketei buruz, baita dagozkion gastuak ordaintzea ere”.

Zioak: Memoria historikoaren tokien zaintzak eta babesak partikularrei eta jabeei ekarri ahal dizkien kostuak ezin zaizkie haiei jasanarazi. Betebehar hori Nafarroako Gobernuari dagokio.

17. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

10. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa. Azken paragrafo bat gehitzen da. Hona edukia:

“3. Nafarroako memoria historikoaren toki gisa inskribatutako lursail edo higiezinaren gaineko eskubideen titularrek edo edukitzaile besterik ez direnek eskubide hauek izanen dituzte:

a) Eskumena duen departamentutik haien kontserbaziorako, babeserako edo aldaketarako laguntza tekniko jasotzea.

b) Diru-laguntzak edo bestelako sustapen neurriak eskatzea, haren kontserbaziorako”.

Zioak: Betebeharrekiko proportzionaltasuna gordetzeko.

18. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

10. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa. 4. eta 5. paragrafoak gehitzen dira. Hona edukia:

“4. Foru lege honen xedeko erregistroan inskribatutako ondasunak kontserbatzeko, mantentzeko eta haien narriadura ekiditeko betebeharraren ondorioz beraietan obrak edo jarduketak egin behar direnean emandako txosten teknikoekin bat, ondasun horien titularrak egin beharko ditu baka-

rrik eskumena duen departamentuak ezarritako jarduketak, dagokion ondasunaren balioaren ehuneko hogeitik gorakoak ez direnak.

5. Memoria historikoaren arloan eskuduna den departamentuak Nafarroako memoria historioaren tokiak kontserbatzen, mantentzen eta zaharberitzen lagunduko du, horretarako ezarritako aurrekontu-partiden bidez”.

Zioak: Ondasunak mantentzeko zama ekonomikoa ez da utzi behar soilik beraien titularren kargura. Administrazioak ekarpen ekonomikoa egin behar du ondasun horiek mantentzeko; bestela, partikularren bizkar geratzen da memoriaren zama, behartuta daudelako haiek mantentzera eta beren jabetzetan bisitak onartzera, araututako betebeharrak bete ezean dagozkion zehapenak egonik. Administrazioak egiten duen bakarra da aholkularitza ematea eta betebeharrak betearaztea, neurri hertsatzaileen bidez.

19. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

11 artikulua izenburua aldatzeko zuzenketa. Hona edukia:

“11. artikulua. Betebeharrak eta eskubideak”.

Zioak: Edukiari egindako zuzenketarekin bat.

20. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

12. artikuluko 2. apartatua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurkeztutako zuzenketekin bat, zaintzeko betebeharra Nafarroako Gobernuari dagokio, eta horrek ezin du zehapenik edo nahitaezko desjabetzerik eragin.

21. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

12 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona edukia:

“2. Foru lege honen 10.1 eta 11.1 artikuluetan ezarritako betebeharrak ez betetzeak ekar dezake Foru Komunitateko Administrazioak nahitaez desjabetzea Nafarroako memoria historikoaren toki gisa inskribatutako lursailak edo higiezinak,

onura publikoaren edo interes sozialaren kariaz, beti ere ordenamendu juridikoarekin eta desjabetzearen gaineko araudiarekin bat”.

Zioak: Desjabetzeko prozedura baino osoago eta segurtasun handiagokotzat jotzen delako. Interes edo onura publiko soilak, berez, ez du desjabetzerik eskatzen.

22. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

12. artikuluko 3. apartatua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurkeztutako zuzenketekin bat, zaintzeko betebeharra Nafarroako Gobernuari dago, eta horrek ezin du zehapenik edo nahitaezko desjabetzerik eragin.

23. ZUZENKETA

Nafarroako Alderdi Sozialista

13.3.b) artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona edukia:

“b) Prozedura ebaztean baloratuko da obraren edo esku-hartzearen proiektua eta inskribatutako ondasunaren balioen zainketan duen eragina, eta adieraziko da lanek bete behar dituzten baldintza bereziak, baldin badaude, bai eta ondasuna babestu eta zaintzeko beharrezkotzat jotzen diren gomendio teknikoak eta zuzentzaileak. Espediente administratiboan Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoaren txostena sartu beharko da. Departamentuak hiru hilabeteko epea izanen du, baimen eskaerari buruz ebazteko, hura aurkezten den egunetik aurrera kontatuta. Epe hori berriazko ebazpena jakinarazi gabe iraganik, interesdunak ulertu beharko du baimen eskaera ezetsi egin dela.

Edonola ere, adieraziko da zein jarduketa edo obratan ez da inolako prozedurarik jarraitu behar, babestu behar den ondasunaren balioan eragiten ez duelako”.

Zioak: Sei hilabeteko epea gehiegizkoa iruditzen zaigu eragin dezakeen kargagatik eta isiltasuna positibotzat jotzen da obra-lizentzien arautzeari dagokionez eta harekin bat. Halaber, helburua da jarduketarik ez geldiaraztea, inolako kalterik ekartzen ez dutenean babestu behar den ondasunerako.

24. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

15. artikulua 2. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela gelditzen da testua:

“2. Departamentuak ezarriko du memoria historikoaren tokien identitate grafikoa, seinaleztapen eta hedapen ofiziala egiteko, identitate korporatiboaren arloko eta Foru Komunitateko toponimoen erabilera ofizialaren arloko araudi indardunarekin bat.

Zioen azalpena: testu bat erantsi da, oroimen lekuen errotulazioak Nafarroako toponimiaren erabilera ofizialaren inguruko araudia ere beteko duela zehaztu eta bermatuko duena.

25. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

20. artikulua 2. apartatuko d) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurkeztutako zuzenketekin bat, zaintzeko betebeharra Nafarroako Gobernuari dago, eta horrek ezin du zehapenik edo nahitaezko desjabetzerik eragin.

26. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

20. artikulua 3. apartatuko b) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurkeztutako zuzenketekin bat, zaintzeko betebeharra Nafarroako Gobernuari dago, eta horrek ezin du zehapenik edo nahitaezko desjabetzerik eragin.

27. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

20. artikulua 5. apartatua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurkeztutako zuzenketekin bat, zaintzeko betebeharra Nafarroako Gobernuari dago.

kio, eta horrek ezin du zehapenik edo nahitaezko desjabetzerik eragin.

28. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“Nafarroako memoria historikoaren toki bat deklaratzeko ekimenak berekin dakarrenean gastu publikoa, memoria gisa deklaratu eta inskribatzea formalizatu gorabehera, edota beharrezkoa denean ondasuna kontserbatzeko, mantentzeko edo babesteko lanak egitea, horietan egin beharreko obren edo jarduketan finantzaketa ekitaldi bakoitzeko aurrekontuan horretarako diru erabilgarria egoteak baldintzatuko du”.

Zioak: Aurkeztutako zuzenketekin bat, zaintzeko betebeharra Nafarroako Gobernuari dagokio, eta horrek ezin du zehapenik edo nahitaezko desjabetzerik eragin.

29. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona edukia:

“Memoria historikoaren arloan eskuduna den departamentuak kulturaren arloan eskuduna denari helaraziko dizkio Nafarroako Memoria Historikoaren Tokien Erregistroan egiten diren inskripzioak”.

Zioak: Departamentuen artean izan behar den lankidetzaren eta Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 14/2005 Foru Legearen 15.c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

30. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“Gaur egungo gizarteetan memoria ezinbesteko tresna bilakatu da egiazko bizikidetzaz justu eta baketsua eraikitzeko bidean aurrera egiteko. Ahantzuraz eta memoria ezaz jokatzeko guztiz bidegabea da biktima individual zein kolektiboen, iragan hurbilean astinduak izan ziren gizartee-

tan, era antidemokratikoan inposatu zirenean indarkeria eragin zuten erregimen politikoa eta sistema sozioekonomikoak. Memoria eta gertatutakoaren oroimena dira bide bakarrak traumaz jabetzeko, biktimen minarekin eta egoera bidegabeekin enpatia sentitzeko, biktimen egia, justizia eta erreparaziorako eskubidea gauzatuko duten politika publikoak garatzeko; horrenbestez, bide horretatik lortuko da egiazko bizikidetzaz, begirada etorkizunean paratzen duena eta halakorik berriz ez gertatzeko bermeak ezartzeko lanari helduko diona. Izan ere, memoria mota asko daude, dudarik gabe, baina justua izanzen bada, kritikoa izan behar du ezinbestez, eta iragana konpromisotik aztertu: konpromisoa giza eskubideekin, pertsonaren duintasunarekin, demokraziarekin, justizia sozialarekin eta askatasunarekin.

Memoria indarkeria eta trauma gogoratzen harago doa; iraganarekin lotutako zerbait baino gehiago da. Memoria, lehenengo eta behin, etorkizunari dagokio, eta, gizarte demokratikoetan, estuki eta fermuki loturik dago akordioaren, justizia sozialaren, demokraziaren, bakearen eta giza eskubideen kultura sustatzearekin. Memoria ezinbesteko tresna da hainbat balio gizarte osoan sustatu eta hedatzeko, askatasuna, begirunea, negoziazioa eta akordioa, hain zuzen ere, bai eta horiek hurrengo belaunaldiei transmititzeko ere.

Gertatutakoaren memoria transmititzen da artxiboetan gordetako agirien bidez, gertaera haietako protagonista eta lekuko izan zirenen ahotik, eta familien baitan gorde eta helarazten den erretratoan; irudiak, soinu grabaketak eta ikus-entzunezkoak ere transmisio bideak dira. Finean, memoria gureganaino iritsi diren arrasto bidez transmititzen da. Baina tokiak ere memoriaren transmisiorako bideak dira, gure gizartea lehen aipatu baldintza eta baloreetan garatzea eragotziz edo bultzatuz baldintzatu zuten gertaera historiko haien tokiak, alegia. Gertaera latz eta tragikoak, gerra bidegabe eta desorekatuetan eman zirenak; hilobi komunak, non milaka nafar ehortzi baitzituzten, bortxaz desagerrarazi eta hil ondoren; bidegabea espertxeratu eta errepresaliatutako milaka lagunentzako kartzela eta errepresio tokiak; edo herri-lanak, beren borondatearen kontra lan egitera behartutako presoek eraiki zituztenak, legez eratu eta herritarrek libreki aukeratu zuten Errepublikaren alde egiteagatik zigorra jaso ondoren. Gertaera historiko horiek definitzen dira oinarritzko giza eskubideak aitortzearen alde izan zituzten helburu eta lorpenen bidez.

Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiak dira, izuarekin eta indarkeriarekin lotutako tokiak, zeinetan giza eskubideen era guztietako urraketak

egin baitzituzten botere zilegiaren kontra altxatu, eta indarkeriaz baliatu zirenek beren ideiak, ideologia eta proiektu politikoa defendatu eta inposatzeko. Toki horiek lotuta daude, halaber, giza eskubide indibidual eta kolektiboak konkistatzeko, borrokatzeko eta erreibindikatzeko guneekin.

Eta Nafarroako Memoria Historikoaren Tokiak dira, halaber, demokrazian bizitako hamarkada hauetan familiek, memoriaren aldeko elkarrekin eta zenbait toki entitatek eta erakundek eraikitako oroigarriak. Indarkeria bidegabe eta ez-zilegiaren ondorioak pairatu zituzten milaka pertsona haien oroimenez sortutako guneak dira. Memoriaren legatu hori gordetzeko, biktima indibidual eta kolektiboek ohore egiteko, haien familiei erreparazioa emateko, eta etorkizuneko belaunaldiei bakearen, bizikidetzaren eta errespetuaren balioak transmititzeko asmoz egindako tokiak dira.

Foru lege honen helburua memoriaren toki horiek babestea da, haien seinaleztapena eta zainketa arautzea, eta haien ezagutzera ematea, terrorearen toki izandakoak oroimenerako eta bakearen eta bizikidetzaren balioak transmititzeko gune bilaka daitezela”.

Zioen azalpena: idazketa berriak jatorrizkoa hobetu eta osatu egiten du, esanahi sakonagoa ematen dio eta oroimen demokratikoko politiketarako berreskuratzen du bai hildakoek eta bai errepresioa, jazarpena eta erbestearen nozitu zutenek garatu zuten borrokaren zentzu historikoa. Halaber, idazkera hobetu egiten du, zenbait paragrafoetan erakusten duen izaera aseptikoegia zuzenduz, jatorrizko testuak saihestu egiten baitu erabilitako bortizkeriaren ondoren eratu zen sistema jakin baten funtsa politikoa eta antidemokratikoa.